ASTEKARIA | 2015eko apirilaren 30ean | XVIII. urtea | USURBIL | 613. zenbakia | www.noaua.eus

TOKIKOM

# noaua

**Udal hauteskundeetarako mahaikideak, hautatuak**

**“Bideoklipak herriaren nortasuna du oinarrian”**

**Usurbil KE senior neskak, Euskadiko txapeldun**



# Jakoba Errekondo: “Bitartekari bat baino ez naiz”

***Bizi baratzea* (Argia) liburua aurkeztuko du larunbatean, Alkartasunan**


USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA
Erdi eta goi mailako zikloak
A eta D Ereduak
www.lhusurbil.com
Maiatzak 9 eta 16
ATE IREKIAK
943 36 46 00


URTINEA
LORATEGIA
Zatoz eta jantzi kolorez
zure etxe, balkoi zein lorategia!
Eta amaren egunean…
era guztietako aukerak oparitzeko!
Egun osoa irekia • San Esteban auzoa, Usurbil
Tel: 943 36 22 55 • Faxa: 943 36 60 54 • urtinea@urtinea.com


IES BHI
LASARTE • USURBIL
LASARTE-USURBIL
INSTITUTUA
Zure aukera
• D.B.H.
• BATXILERRA
AURREMATRIKULAZIOA
maiatzaren 4tik 14ra
lasarte-bhi@instilasarte.net • Buenos Aires aldapa, 1 - LASARTE-ORIA Tel.: 943 372 852 / 943 372 277
www.instilasarte.hezkuntza.net

## Albistea iruditan

# Maiatzaren Lehenean, Hernanira joateko deia

Eskualdeko manifestazioa deitu du LAB sindikatuak Langileen Egunerako, maiatzaren lehenerako. Eguerdiko 12:00etan abiatuko da Gudarien Plazatik, eta amaieran, Tilosetan ekitaldia egingo dute. Deialdia, apirilaren 23an eskualdeko ordezkariekin eginiko batzarraren ostean egin zuten. Zer ospaturik ez, baina harro egoteko arrazoiak badirela aipatzen dute LAB-etik. Harro, aipatu sindikatuko kide izan eta "borrokatzen dugun langileak garelako". Aurtengo maiatzaren 1ak berezitasunik ere baduela nabarmentzen dute, "40 urte bete berri ditugula burutzen dugulako. Eta ez dugu ezkutatuko: harro gaude lau hamarkada hauetan LABek Euskal Herrian egin duen borrokagatik, askapena ekarriko digun bidean egin duen ekarpenagatik; eta harro gaude milaka eta milaka langilek LABen ikusi dutelako zapalkuntzaren kontra borrokatzeko tresna egokia. Hala erakusten dute hauteskunde sindikalen epe trinkoa igaro ondoren datuek, gu izan baikara igo garen sindikatu bakarra Euskal Herri osoan".




**Eguerdiko 12:00etan Hernaniko Gudarien Plazatik abiatuko da LABek deitu duen manifestazioa.**

## Laburrean

### 1971n jaiotakoen bazkaria Iruin sagardotegian

Aurten berriro elkartuko dira bazkari bat egiteko. "Maiatzaren 9an larunbatean batuko gara eta Iruin sagardotegian izango da bazkaria. Izena emateko email bat bidali helbide honetara, maiatzaren 7a baino lehen: 1971koak@gmail.com

### Datorren astelehenean, odol ematea

Maiatzaren 3an astelehena odol ematea, Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteak deituta, 18:00-20:30 artean anbulatorioan.



### Jaietako diseinu lanak, maiatzaren 12rako

Lehiaketako txapeldunak, 500 euroko saria jasoko du. Diseinu lana sortzen hasteko lehen pausoa Potxoeneara gerturatzea izango da.

Egitarauko testua eta oinarriak bertan jaso behar dira. Bestela, eskatu emailez, kultura@usurbil.eus helbidera idatzita.

noaua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.com /// www.noaua.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14.00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:** Idoia Torregarai.
**Aldizkariko koordinatzailea:** Imanol Ubeda.
**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.
**Publizitatea:** Beatriz Alda, publizitatea@noaua.com
**Diseinu berria:** Erroitz S. L.
**Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com:** Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
**Banaketa:** Olatz Rezola, Arantxa Zulaika.
**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
**Tirada:** 2.800 ale.
**Lege-Gordailua:** SS-668-96
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Usurbilgo Udala

AIRE, AIRE !!! EUSKARARI
Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak
Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



**Maialen Unanue**

# Goaztean!

Pasa da astebete Kilometroak 2015en bideoklipa aurkeztu genuenetik. Arrakasta itzela izan zuen jendartean, hasi aktore gisa parte hartzeko eskatu genien guztiengandik eta Usurbilen mugetatik harago amaitu. Egun bakarrean 6.000 bisitatik gora izan zituen bideoklipak Youtuben, eta kritikak -txikiakere izan diren arren, gerturatutako ehuneko handi baten iritziak izan dira aldekoak.

Txalapartak deituta lozorrotik atera eta menditik herrira jaisten diren iratxo-buruhandien istorioa kontatzen du bideoklipak; herritar guztiak sokaz, euskararen metafora den sokaz, lotzen dituzte. Banan banan lotutako herritar guztien sokak bakarrean bildu eta, elkarrekin tira eginez, zentzu berean lanean jartzen dituzte herritarrak: euskara oinarri hartuta, alegia. Baina bideokliparen onena da herriaren ezaugarri ugari bilduak izan direla, herriko jende ugarik parte hartzen duela bertan, eta horrek guztiak sekulako kolorea ematen diola bideoari. Usurbilen hainbeste arrakasta duten buruhandiak erabiltzea ere bideoaren alde onetako bat dela esango nuke.

Lehengo asteazkenean, Sutegiko aurkezpenean, saio xumea bezain ederra ikusteko aukera izan genuen. Txalapartariak, bideoklipa bera, abestiaren eta bideokliparen sortzaileen azalpenak, eta abestia zuzenean entzuteko aukera. Txapela kentzeko modukoa da oholtzara igotako bakoitzaren ekarpena.

Komikoa izan zen Joseba Tapiak eta Jakoba Errekondok hitza hartu zuten unea. Tapiak letra jaso zutenean musikariek jasandako "depresioa" aipatu zuen. Baina lortu zuten egoerari buelta eman eta kantu ederra osatzea; Errekondok, berriz, abestiaren hitzen jatorria, esanahia azaldu zituen. Haria, Oria ibaiaren bidez datorkiguna, oriotarrei hartutako Kilometroen lekukoa, alegia; haria, euskara, antzinako usurbildarrek utzi zigutena, eta etorkizunekoei utziko dieguna. Arbasoak zetozelakoan, gu etorri ginen, beraz, goaztean aurrera!

Gogor lan egin ostean lortutako emaitzak sortzen duen emozioa ikustearen parekorik ez da. Eta lana denona da; ehunka dira, lan desberdinetan, orduak eman dituzten lagunak (eta emango dituztenak oraindik ere). Guztiei esker ari gara bidean aurrera. Gero eta gutxiago falta da Kilometroak egunerako, eta hau jada ikaragarria da. Aupa zuek!

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Ilazki Gainza | Luis Aranalde | Nerea Zinkunegi | **Maialen Unanue** | Idoia Torregarai | Joxe Piñas



# Bozka egunerako mahaikideak, hautatuak

Zozketa bidez hautatu zituen aurreko ostiralean Usurbilgo Udalak, ezohiko osoko bilkura bidez, maiatzaren 24ko udal eta foru hauteskundeetarako bozka lekuetako mahaietan egon beharko duten herritarrak. Mahai bakoitza lehendakari eta bi bokalek osatuko dute, eta hauetako bakoitzak bi ordezko izango ditu. Honenbestez, mahai bakoitzeko 9 lagun hautatu dira. Guztira, 72 herritar aukeratu dira, herrian zehar jarriko dituzten 8 mahaietarako. Aurreko deialdietan bezala, oraingoan ere bozkatzeko hiru gune Udarregi Ikastolan kokatuko dira, bi Kalezarko Haur Eskolan eta mahai bana, Santuenea Kultur Elkartean, Aginagako Herri Ikastetxean eta Zubietako Lanbide Eskolan. Maiatzaren 24ko hauteskundeetan bozka lekuetan egotea tokatu zaien herritarrek, egunotan jasoko dute jakinarazpena.



8 mahaietarako 72 herritar hautatu dira. Aste honetan jasoko dute jakinarazpena etxean.

**Zubietarako zozketa, Tokiko Gobernu Batzarraren esku**

Udal eta foru hauteskundeekin batera, Zubietako Herri Batzar berria osatzeko bozka eguna izango da baita maiatzaren 24a. Kasu honetan ordea, mahai kideen zozketa ez zuten apirilaren 24ko ezohiko osoko bilkuran egin, atzerapen kontu batengatik. Gaia Tokiko Gobernu Batzarraren esku uztea proposatu zuen gobernu taldeak. Aho batez onartu zuen udalbatzak eskumen aldaketa hau, ezohiko osoko bilkurara gerturatu ziren udal ordezkariok; EH Bildutik, Mertxe Aizpurua, Alaitz Aizpurua, Jone Urdanpilleta, Jose Maria Rivadeneyra, Iñaki Ugarte eta Joxe Ramon Furundarena zinegotziek eta EAJ-PNV-ko ordezkari Josune Urkolak. Hartutako erabakiak, maiatzaren 24ko hauteskundeei bakarrik eragingo die. Aurrerantzean berriro udalbatza izango da eta, gaia kudeatuko duena.

**Azken osoko bilkura, maiatzaren 21ean**

Agortzear da jada, 2011-2015 legegintzaldia. Aurreko ostiralekoa, hauteskunde eguna baino lehen egindako azken aurreko osoko bilkura izan zen. Asteartean, apirileko osoko ohiko bilkurarik ez zen izan. Hurrengo plenoa, azkena eta duela astebetekoa bezala ezohikoa, maiatzaren 21erako finkatu dute.

**Astebete, kanpaina hasteko**

Hauteskunde kanpaina, maiatzaren 8ko gauerdian hasiko eta hilaren 22ra arte luzatuko da. Maiatzaren 14ra arte aurkeztu dezakezue bestalde, posta bidez bozkatzeko eskaera, Correoseko bulegoetara gerturatuta.

# Liztor kabia Etxealdian



Herritar baten jakinarazpenari esker, Etxealdia ondoko zuhaitzetako batean atera dugun irudia duzue ondokoa. Azken urteotan hainbeste kalte eragiten ari den liztor asiarren kabi bat dago Etxealdiatik Bizkarrera bidean dagoen zuhaitzetako batean.

## Tonbolarako materiala

Maiatzaren 17ko Sagardo Egunean, Santixabeletan eta urriaren 4an #Kilometroak15 ekimenaren alde ospatuko diren tonboletarako materiala uzteko gonbita luzatua dago. Eskulanak, jatekoa… denetariko opariek izan dezakete lekukoa tonbolan. Materiala uzteko prest dagoena gerturatu dadila Udarregi Ikastolako idazkaritzara, edo deitu dezala hona: 633 155 879 (Ana).

## Jai parekideak izateko ikastaroa

Matrakak Taldeak eta Udaleko Parekidetasun Sailak antolaturiko bigarren formazio saioa, maiatzaren 6an, 18:00-20:00 artean Potxoenean, Miren Guillo, Emagin elkarteko kidearen eskutik.

# Ekitaldi zirkular batean aurkeztu dute Usurbilgo EHBilduren hautagai taldea




**Lan jarduera bakoitza ordezkatzen zuen koloretako oihal bati eutsita erretratatu zituzten.**

Jendaurrean agertzen ziren lehen aldia zuten apirilaren 26koa, eta horretarako ekimen koloretsu, parte hartzaile eta alaia hautatu zuten. Formatu berritzaile, ekitaldi zirkular eta udalerriko herritarren bilgune nagusietakoa den Dema plazaren bueltan aurkeztu zuten, datozen maiatzaren 24ko udal hauteskundeetarako Usurbilgo EHBilduren hautagai taldea.

Argazki erraldoi bat ere atera zuten, borobil batean ilaratan jarri ziren herritarrekin. Herritar ilara bakoitzak, lan jarduera edo arlo bakoitza ordezkatzen zuen koloretako oihal bati eutsita erretratatu zituzten. Herritar ilara bakoitzak, eskuz esku pasa zen papiro bat zuen gainera. Eta papiro barruan, datozen lau urteotan, arloz arlo bete nahi diren erronka edota egitasmoak. Ekitaldian irakurri zituzten. Hitzordua, EHBilduren hautagai taldea eta alkategaia, Xabier Arregi aurkezteko baliatu zuten.

Ekitaldiak gainera, bisitari berezi bat izan zuen; hainbat urtetan Udalean lan egin ostean, usurbildarren artean ezaguna den EHBilduren foru hauteskundeetarako hautagaia, Xabier Olano.

## Gure Esku Dago Eguna, maiatzaren 9an

Ekainaren 21ean, Euskal Herriko hiriburuetan oihal zatiekin hautestontzi erraldoiak eraikitzeko ekitaldiak deitu ditu Gure Esku Dago mugimenduak. Usurbildarrak Donostiara joatera deituak daude. Ekimenean izen emateko epea zabalik da. Asteburuetan gerturatu, Usurbilgo Gure Esku Dago lan taldeak frontoi inguruan jarriko duen mahai ibiltarira. Bertan jasoko dituzue argibide gehiago.

**Kamisetak salgai**

Kamisetak ere salgai dituzte. Ekainaren 21eko ekitaldia girotzen hasteko, Ehuntze Eguna antolatu dute maiatzaren 9rako, Usurbilen:

**Maiatzak 9, larunbata**

■ 11:00etatik aurrera Askatasuna plazan: tailerrak haur, gazte eta helduentzat.

■ 14:30 Bazkaria Askatasuna Plazan. Bi menu:

Helduena: Oilasko paella, txekor masaila saltsan eta pastela. 15 euro.

Haurrena: makarroiak eta izozkia. 5 euro.

■ Txartelak aurrez salgai: Lizardin, Bordatxon, Aitzagan, Irratin eta Patrin.

■ Ondoren, bertso musikatuak.

■ Amaitzeko, ekitaldia.

■ Antolatzailea: Usurbilgo Gure Esku Dago.



**Herri askotan, aurreko asteburuan ospatu zen Ehuntze Eguna. Usurbilen, datorren astean.**

### Partaidetzazko aurrekontuen inguruko saioa

Asteazken honetan, apirilak 29, 19:00etan Potxoenean. Oraingoa, saio espezifikoa izango da, ingurumenaren ingurukoa, nahiz beste gai hauei loturiko ekarpenak ere egin ahalko diren: energia, kultura, ekonomia, turismoa. Bi milioi euro jarri ditu Aldundiak Buruntzaldeko herritarren esku, eskualdeko bizilagunek erabakitako egitasmoetara bideratzeko. Proposamenak egiteko deitu den bilerara joan daiteke. Bestela sartu aurrekontuahobetzen.net atarian edo udaletxean, Potxoenean, Oiardo Kiroldegian, Sutegi udal liburutegian, Aginagako Arrate zahar egoitzan eta Zubietako Alamandegin jarri dituzten postontzietan utzi. Apirilaren 30a, proposamenak egiteko azken eguna. Lehen ekarpenak aurreko asteko tailerrean egin ziren.

### Martin Garitanoren bisita

“Herritarrekin herrira” ekimenaren barruan, Martin Garitano Gipuzkoako diputatu nagusia, Foru Aldundiko beste ordezkari batzuek lagunduta, Usurbilera etorriko da egun osoko bisitan. Herriko ordezkari politikoekin eta herri eragileekin bilduko da, herritarren proiektuak eta kezkak gertutik ezagutzeko asmoz.

Bisita 11:00etan hasiko da, udaletxean.

Goizez eta arratsaldez herri elkarteetako eta enpresetako ordezkariekin bilduko da, herrian egin diren proiektuak eta kezka iturri direnak gertutik ezagutzeko asmoz.

**Bilera irekia, maiatzaren 7an 19:00etan Artzabalen**

Bisita ixteko bilera irekia egingo da Artzabalen, 19:00etan. Usurbildar guztiei zabalik dago bilera, bai foru ordezkariei nahi dituzten galderak egiteko, bai haien iritziak emateko.

# Askatasuna plazarako haur parkea hautatzeko epea, maiatzaren 4ra arte

Hiru proiektu dituzue aukeran, 2-7 eta 8-12 urte arteko haurrentzako guneetarako. Etxean jasoko zenuten eskuorrian dituzue, parke bakoitzaren inguruko zehaztasunak. Gustuko duzuena hautatu, datu pertsonalak idatzi eta Udalak jarri dituen postontziotako batean utzi zuen proposamena; udal erregistroan, Sutegin, Kiroldegian, edota ikastetxeetan (Haur Eskolan, Udarregi Ikastolan, Zubieta eta Aginagako Eskola Txikietan).



**Proposamen ezberdinen inguruko eskuorriak banatu ditu Udalak etxez etxe. Orain, gustukoena hautatzeko aukera dago.**

# Dantza Eguna, herri ikuskizun handia

Dantza mugimendua bizi asko dago herrian. Larunbateko jaialdian argi geratu zen, zenbat jende mugitzen duen dantzak Usurbilen. Eta zer nolako maila duten gainera. Arratsaldeko saioa, inoiz baino “internazionalagoa” izan zen. Udalerriko mugak gainditu zituen emanaldiak. Usurbilen dantza estilo ezberdinetan dabiltzan herritarrei, Lasarteko Kukuka taldekoak eta Urdiñarbeko dantzariak batu zitzaizkien. Gaueko “Dantzaroa” ikuskizunaren estreinaldia, mundiala. Kolorea, mugimendua, eta suziriek girotu eta Dantza Taldeak hilabeteotan gogotik landutako ikuskizuna, hitz batean, ederra.



**Larunbateko jaialdian jende asko batu zen, oholtzan eta oholtzatik kanpo.**





**Hilabeteotan lanean aritu dira eta emaitza ikusgarria izan zen. Herri bat aritu zen dantzan. Argazki gehiago: www.noaua.eus**

## Jolasean agurtu dute urteurrena

Akabo Ziortzaren 30. urtemugako ospakizun astea. Gazteei zuzenduriko jolas egunarekin borobildu zuten igandean, urteurren festari loturiko egitaraua. Jolasean harrapatu genituen, giro ederrean. Amaitu dira ospakizunak, baina gogoan izan, urtemugako materiala salgai dutela Ziortzakoek. Produktuok eskuratzeko bideok dituzue: ziortzage.wordpress.com edo ziortzage@gmail.com. Eta Elkarren grabatu duten abestia, entzungai duzue sarean.



**Abesti bat ere grabatu dute eta euren web orrian dago entzungai.**

## Zumartekoak, EMUSIK 2016 jaialdian

XII. Europako Musika Eskolen Jaialdia ospatuko da Donostian, EMUSIK 2016. 10.000 dantzari eta musikaritik gora bilduko ditu jaialdi erraldoiak. Hitzordua ondo prestatzeko, maiatzaren 9an, 17:00etan inaugurazio ekitaldiaren aurreestreinaldia egingo da, Anoetako futbol zelaian, 5.000 musikari eta dantzarirekin. Tartean, Zumarte Musika Eskolako 95 ikasle izango dira. Ekitaldira gonbidatu gisa joan nahi dutenek, Fnac dendara jo dezatela. 5 eurotan eskura ditzakete gonbidapenak eta kamisetak. Informazio gehiago, donostiaeskola.eus atarian.

## “Herriko zuhaitz dotoreena” lehiaketa

Argazki Lehiaketaren bederatzigarren edizioa antolatu du Santuenea Elkarteak. Oraingoan, herriko zuhaitz dotoreena izango da gaia. Elkarteko bazkideek, eta 4-14 urte arteko udalerriko haurrek parte har dezakete. Izen ematea, maiatzaren 11tik 18ra ludotekako ordutegian.

# "Bideoklipak, Usurbilen nortasuna du oinarrian"

Herria aurkeztu nahi zuten. Usurbilen nortasunean oinarritu dute, apirilaren 22an jendaurrean aurkeztu zuten #Kilometroak15 ekimenaren bideoklipa. Irudigintzaren alorrean lan egiten duen herritar taldeak sortu du, urriaren 4ko jaialdia iragartzeko sarritan ikusi eta entzungo dugun bideoklipa. "Esan dezakegu auzolanean egindako sormen kolektibo bat dela", egileek apirilaren 22an egin zen aurkezpen ekitaldian ziotenez.



"Esan dezakegu auzolanean egindako sormen kolektibo bat dela".

Bideokliparen sorkuntza prozesua azaldu zuten. Lehenbizi, "Lotzen GaTTunk" abestiko letra egilearekin, Jakoba Errekondo herritarrarekin bildu ziren. "Hainbat bilera egin genituen, ideia zaparrada sutsuak eginez. Gero, ideia horiek guztiak bideoklipera ekarri behar genituen, bukaerako emaitza Udarregi Ikastolaren eta Usurbilen isla izan zedin", egileen esanetan.

Kantari jarraiki, bideoklipeko protagonistak soka eta haurrak izatea erabaki zuten. "Haurrak, ikastolako ikasleak, iratxo gisa irudikatu genituen; haiek dira ikastolaren oraina eta Usurbilen etorkizuna. Usurbilgo haurrek afiziotzat dituzte buruhandiak, eta horrela sortu genituen iratxo-buruhandiak. Soka, berriz, herritar guztiok batzen gaituen soka da, euskara, alegia", argitu zutenez.

### Euskarak lotzen gaituelako

"Herri honekin lotura estua duen txalapartarekin ireki dugu bideoa. Txalapartariek basoko izpirituei dei egiten diete, eta hauek buruhandi-iratxo modura agertzen dira. Pixkanaka, iratxo hauek menditik herrira jaitsiko dira, bidean topatzen dituzten hainbat lanbidetako langileak ahotik ateratako sokaz bilduz. Noski, soka honek gure hizkuntzaren metafora izan nahi du, euskarak lotzen gaituela irudikatzeko. Iratxoak herriko plazara iristean, langile guztiak lotzen dituzten sokak elkartu eta denak batera lanean jarriko dituzte. Izan ere, euskararekin, denok batera (h)ari gattunk", egileen esanetan.

### Oztopoei aurre egiten

Egindako ahalegina itzela izan da, eta sortze prozesuan, zenbait oztopoei ere aurre egin behar izan diete. "Erakutsi nahi genuen aniztasuna lortzea ez da lan erraza izan: jende mordoa, lokalizazioak, sokak, buruhandiak... Eta bakoitzaren ordutegiak antolatzea izan da seguruenik lan zailena. Gainera, Euskal Herriko eguraldi aldrebesak jarri dizkigun trabak gainditu behar izan ditugu etengabe. Baina Komunikazio lan taldeko lagunei esker, sortzaileok gauza horietaz guztietaz ahaztu, eta bakoitza bere lanean zentratzea lortu dugu", bideoklipa landu duen taldearen izenean, Potxoeneko aurkezpen ekitaldian parte hartu zuten Joseba Larratxe eta Juan Luis Izeta herritarren hitzetan.

## Parekidea, inklusiboa eta jasangarria

Jai jasangarri, parekide eta inklusiboen aldekoa ere bada bideoklipa. Parekidetasunari dagokionez, bideokliparen bidez, tradizionalki gizonen lan gisa definitu izan diren zereginetan emakumeak ikus ditzakegu bideoklipean eta abestian, "horren isil(dua) dugun noka nabarmentzeari eman diogu lehentasuna", Garazi Lizaso herritarrak bideoklip aurkezpenean zioenez.

Urriaren 4ko jaialdiari begira, jai parekideen aldeko formazio saioak antolatu dira herrian, baina baita udalerri jasangarri baten alde ere, ekimen honi lotuta dauden jarduera guztietan jasangarritasun irizpideak hartuko baitira kontuan, Mikel Usabiagaren esanetan. Hartara, poltsa berrerabilgarriak banatzen ari dira. Eta urriaren 4an sortzen den organikoa herrian bertan konpostatzea sustatu nahi da. Hondakinen kudeaketan urrats berriak eman nahi dira beraz.

Baina asmoak haratago doaz. Inklusibitateari dagokionez, "gure helburua ez da desgaitasunen bat duten pertsonak gizartean integratzea, baizik eta gutako bakoitzak gaitasun ezberdinak ditugula aitortzea eta guztiok osatutako jendarte inklusiboa eraiki behar dugula barneratzea", Begoña Izetak aurreratu zuenez. Pertzepzio eta jarrera aldaketa sustatzeko hainbat sentsibilizazio eta pedagogia ekimen iragarri dituzte.










USURBILDARROK
garaile!
Herri programaren aurkezpenak
Maiatzak 4, astelehena:
KALEZAR. Haur Eskolan. 19:00
Maiatzak 5, asteartea:
TXOKOALDE. Erroizpe Elkartean. 19:00
Maiatzak 6, asteazkena:
ZUBIETA. Kaxkapen. 19:00
ehbildusurbil@gmail.com
EHBilduUsurbil
USURBILDARROK
garaile!
ehbildu


TXAPELDUN TABERNA
ALOKAIRUAN edo
SALGAI
TEL 676 97 60 05


Estética
Lourdes Larrañaga
ESTETIKA
ILEAPAINDEGIA
943 36 28 87 USURBIL
ORAIN ERE ILEAPAINDEGIA!
IREKIERA ESKAINTZA (MAIATZA)
GARBITU ETA ORRAZTU 9,5€
(TRATM. PRODUKTUAK KANPO)
MOZTEA 10,00€
KOLOREA 28,00€
KOLORE + MOZTU 38,00€
METXAK (TXAPELAKIN) 31,00€
METXAK + MOZTU 41,00€
PERMANENTEA 36,00€
PERMANENTEA + MOZTU 46,00€

# “Bitartekari bat baino ez naiz”

Gero eta gehiago eman, gero eta gehiago jasoko duzu. Hala esan digu Jakoba Errekondok. Ez duela idazle sena. Liburuko guztia jaso egin duelako jarri dela idaztera. Hezkuntzarekin parekatu du prozesua. “Ni hau egiteko gai izan banaiz, herri honek gaitasuna izan duelako gu hezitzeko”. Ikasitakoa partekatzera dator *Bizi baratzea* (Argia) liburuarekin. Iradokizunak jasotzeko egarriz. Iritziak batzeko gosez.



Rock and roll artista handi baten pare dabil. Hilabete eskasean 25 aurkezpen ditu hitzartuak. Larunbat honetan Alkartasunan izango da, eguerdiko 11:30ean.

**“Baratzearen abenturan murgiltzeko grina daukatenentzat gida ezin hobea”, prentsa-oharrean halaxe irakurri dugu.**

**Jakoba Errekondo.** Ez dakit gida hitza ote den definizio egokiena. Ezer ez dakitenei edo dagoeneko baratzean ari direnei oinarri batzuk ematen saiatu naiz: nola aukeratu lur bat, oinarrizko gauzak zeintzuk diren– lurra, ura, argia–, landareen funtzionamendua... Eta bestetik, baratze bat egiteko oinarrizko lanak zeintzuk diren azaldu ditut.

Ilargiaren eraginaren inguruko atal bat ere badu liburuak. Ongarriei buruzko beste bat. Buruhausteei ere tarte egin diet. Eta gaitzez eta izurriteez ere hitz egiten da liburuan, eta horiei nola aurre egin.

**Barazkiei buruzko fitxa praktikoak ere topatuko ditu irakurleak.**

Barazki bakoitzari buruzko istorioa jasotzeaz gain, landare bakoitzarekin egin beharreko lanak azaltzen dira, uzta nola egin eta nola jaso, nor norekin landatu... Eta bakoitzak badu *Trikimailuak* izeneko ataltxo bat. Landare bakoitzean, zein trikimailu diren inportanteak.

Ez da hasiberrientzako bakarrik, lehendik ere baratzean ari direnentzako ere egokia da liburua. Lehendik ere oinarrizko gauzak egiten dakienari beste jakintza bat eman nahi zaio.

Ondoren, 12 belarren inguruko informazioa dator. Eta bukaeran, niretzat oso inportantea den atala: hiztegia.

> JAKOBA ERREKONDO
>
> ***“Ez da hasiberrientzako bakarrik. Lehendik ere oinarrizko gauzak egiten dakienari beste jakintza bat eman nahi zaio”***

**Hiztegietan jaso gabe dauden hitzak ere badira, ezta?**

Batzuk hiztegietan daude, baina beste batzuk ez daude inon jasoak. Saiatu naiz topatu ditudan guztiak biltzen. Urtetan hitzaldiak ematen aritu naiz eta han eta hemen jasotako hitzak batzen joan naiz. Uste dut oso garrantzitsua dela hau, zeren euskaraz ez dago hiztegi onik.

Literaturako erreferentzia asko sartu ditut. Eta esaerak eta esamoldeak.

**Gida bat baino zerbait gehiago dela, alegia.**

Ikuspegi borobilagoa du. Baratzea ez da lurra landatzeko ekintza bat bakarrik. Tomateari zein tratamendu egin behar zaion argitzea bakarrik. Tomatea lantzen ari dena beste gauza asko egiten ari da. Denon osasunean pentsatzen ari da, kalitatekoa, bertakoa...

**Liburua oso grafikoa da. Zer esan bezain garrantzitsua izan da nola esan.**

Iñaki Eizagirrek egin du diseinua, eta lan ikaragarria egin du: liburu pilo bat bakar batean.

Oso inportantea izan da diseinua. Liburua idatzi eta gero, diseinuan asko erreparatu dugu, zer errepikatu, entresaketan zer ipini.... Konposta nola egiten den ondo esplikatzeko, Joseba Larratxek marrazki berezi bat egin du.

Eta orain, lan hori hartu eta gero, liburua defendatzera. 25 aurkezpen dauzkat maiatza amaiera bitarte. Jendearengana eraman behar da liburua.

**“Garaian garaikoa garaiz”. Izenburu hori ere badakar azalak. Gure ingurunea kontuan hartuz idatziriko liburua da, ezta?**

Gazteleraz liburu asko daude italieratik, alemanieratik, ingelesatik itzuliak. Arazo gehienak hortik datoz. Egoki ez diren aldaerak hartzeagatik, egoki ez diren giden aholkuak jarraitzeagatik.

Mediterraneorako teknikak erabiliz landatzen badugu adibidez, beti gaizki ibiliko gara. Gauza horiek oso inportanteak dira. Horregatik, hemengo eta batez ere Euskal Herriko isuri atlantikorako pentsatua dago liburua.

## “Hitzaldietara joaten naizenean beti esaten dut: ikastera etorri naiz”

**Zure irakurle/entzule asko zain izango ziren. Hori ere akuilu handia izan al da?**

**Jakoba Errekondo.** Noski. Nik liburua idatzi dut jendeak eskatu egiten didalako, etengabe. Eta bestetik, lotuta dago hedabideetan egiten dudanarekin. Badirudi erakusteko nagoela hor (Euskadi Irratian eta Argian). Baina ni nago ikasteko. Bitartekari bat baino ez naiz. Galdera bat egiten dutenean irratian ez didate niri bakarrik egiten, entzuten ari diren beste milaka entzuleei ari dira galdera egiten. Eta milaka entzule horiek martxan jartzen dute burua. Antzeko zalantza izan dutelako inoiz. Batzuk erantzun egiten dute, beste batzuk Facebooken ipintzen dute. Ni katalizadore bat naiz. Ni ez naiz sentitzen diskurtso bat egiten duen katedratiko baten gisan. Nik saltsa bat sortzen dut, eta gaiaren arabera jende gehiago edo gutxiago egongo da. Baina saltsa horrek behar du lekukotza bat. Horrela hasi gara liburua idazten.

**“Eman eta hartu”. Azalean datorren beste esaldia. Eman bezain beste hartuko duzu.**

Hitzaldietara joaten naizenean beti esaten dut, "ni hona ikastera etorri naiz". Teknikak, hitzak... etengabe ari naiz ikasten.




Alkartasuna kooperatiban dago salgai.

# “Guk ere sortu dezakegu”

**Azken urteotan, eta azken txanpan bereziki, baratzean aritzeko joera nagusitu da baita hiritarrak diren guneetan ere.**

**Jakoba Errekondo.** Gero eta nabarmenduago ikusten dugu, baina urteetako joera da. Gako asko daude. Batetik, krisia. Krisiak erakutsi digu guk ere sortu dezakegula. Bestetik, kalitatea. Oso arduratuta gaude jaten dugunaren kalitatearekin. Osasuna dago, bestalde. Lurrarena, gurea… Gure ondorengoei zein ingurumen uzten ari garen.

Horrek denak ekarri ditu kontsumo taldeak, eta nekazaritza kalitatezko jarduera batera bideratzea, ekologikora. Gero eta nekazaritza industrial gutxiago dugu.

Beste zerbait ere ekarri du baratzezaintzaren inguruko kontu honek. Gure kulturara benetan lotzea, hemengo gauzak kontsumitzea…



Herri baratzetan, 1.000 familia daude izena emanda Gipuzkoan. Usurbilen ere bada horretarako eremurik, eta bertan atera genituen argazkiok.

**Moda iheskorra da ala sustraitzera datorren fenomenoa al da baratzegintzarena?**

Datu sinple bat emango dizut. Momentu honetan Gipuzkoan, herri baratzetan, 1.000 familiatik gora dute baratzea. Familia horiek ez daude beraien baratza produzitzen. Berez, ikaragarria dena. Baratzearekin batera, bestelako ardura batzuk ere hartzen ari direla esan nahi du horrek: ingurumena, kalitatea, osasuna…

Eta ardura horietaz jabetzean, bestelako planteamenduak datoz segidan. Seme-alabei ardurak hartzeko garaia iristen zaienean, beste ikuspegi bat izango dute. Bertako produktuak gehiago kontsumitzeko joera, kontsumoa bera humanizatzea…

### Sagardoaren Ibilbide Turistikoa

Larunbatean hasi zen Sagastiak Loretan zikloa. “Guk garbi daukagu sagarra eta sagardoaren kultura izugarria dela. Horrek behar du bere tokia, eta sustatu beharra dago. Honetan ere jakinmin handia dago. Ondarearekiko gero eta ardura gehiago daukagu eta hori ere lotu daiteke baratzearen kalitatearekin, eta ingurumenarekiko edota osasunarekiko dugun kezkarekin”.

Besteak beste, Sagardoaren Ibilbide Turistikoa aurkeztuko da. “Usurbil gune turistiko bezala planteatzen da. Baina ez soilik sagardotegi edota txotx ikuspegitik. Sagastiak, tolareak, baserriak, katak… Areago jo nahi da Ibilbide Turistikoarekin. Hori ez dago inon. Eta gainera ikaragarrizko eskea dago, kanpotik batez ere. Guk gure burua gutxietsi egiten dugu beti, baina Alemaniatik, Amerikako Estatu Batuetatik jendea etorriko da ibilbide turistikoa egitera, eta orduan jabetuko gara zerbait badugula”.



# Saria, “Oriako harribitxi berria”

Saria leheneratzeko egin diren lanen emaitza agerikoagoa da. “Lur-mugimenduei esker ura berriro hasi zen sartzen erriberara. Landare inbaditzaileak kenduta, bertakoek aukera gehiago dute beren lurraldea berreskuratzeko”, *Usurbil eta Oria Beheko txoriak* web orrian adi-tzera eman dutenez, Oriako harribitxi berrian bilakatu da Saria. “Denborak eta naturak berak egin dute gainerako guztia”. Legar-txori edo txirritxo txikia, basahatea eta uroiloa, txirriak, koartzatxo zuria, bernagorria, kuliskak, zikoina, koartzak, zankaluzeak, arrano arrantzalea, koartza gorria… Sarian azkenaldian ikusi diren hegaztiak.




**Sariako paduretan hegazti batzuk hasi dira umatzen. Eskubitara zankaluzeak. QR kodearekin bideo bat ikus dezakezue.**

Duela bi aste, Sariaren i–nauguraziaren berri eman genuen. Baina albistea, ordea, bestea da. Saria betetzen ari den funtzioari buruzkoa. “Aurtengo udaberrian urtetik urtera sumatu dugun joerari eutsi dio Sariak, eta ustekabe politak ere eskaini dizkigu”, *Usurbil eta Oria Beheko txoriak* taldekoen blogan irakurri dugunez.

Apirilean bertako hegaztiak umatzen hasita badaude ere, pasekoak oraindik iparraldera bidean dira, “eta gure artean hartzen dute ordu edo egun batzuez, jateko eta indarberri–tzeko tartetxo bat”.

**“Eztei-dantza txoro eta ikusgarriak”**

Duela urte batzuk aurreikusi zuten legez, espezie arruntenak hasi dira Sarian ugaltzen. “Legar-txori edo txirritxo txikia iaz bertan hasi zen, eta aurten ere hemen dira beren eztai-dantza txoro eta ikusgarriak egiten, lurraldetxo bat zaintzen eta arerioengandik babesten. Aurki izango dira habiak, arrautzak eta umeak. Basahatea eta uroiloa, berriz, ematen du hasi direla uma–tzen, ama-umeak ikusi baititugu dagoeneko”.





**Martin Anso, Eguzki**

# Lasarte-Oriako eta Usurbilgo saneamendua dela eta, Eguzkiren kezka

Lasarte-Oriako eta Usurbilgo Saneamenduko Hartzaile edo Intertzeptore Nagusiaren lanak laster bukatuko dira; aurten bertan beharko lukete, behintzat. "Hartzaile edo intertzeptore nagusi" hau estolda bat da; azken batean, hodi handi bat baino ez. Hala ere, "hodi" honi esker, aipatutako bi udalerriotako (gehi Zubietako) ur beltzak bildu eta Hernanira eramango dira. Hernanitik, berriz, Loiolako araztegira, eta, bertan tratatu ondoren, itsasora botako dira, Ulian.

Tamainari erreparatuta, oso lan garrantzitsuak dira. Hona hemen datu adierazgarri batzuk: 13.712 metro hodi, lau ponpa-etxe eta hainbat ekaitz-depositu berri Lasarte-Oriako, Usurbilgo, Donostiko eta Hernaniko lurretan eraikiak; adjudikazio-aurrekontua, berriz, 24,39 milioi eurokoa izan zen.

Baina, tamaina alde batera utzita, hauek oso lan garrantzitsuak dira, batez ere Lasarte-Oriako eta Usurbilgo ur zikinak biltzea eta araztegira eramatea ahalbidetuko dutelako; behingoz ahalbidetu ere. Kontuan izan behar da gaur egun, baten bati beharbada gezurra irudituko zaion arren, Lasarte-Oriako eta Usurbilgo ur beltzak (18.000 eta 6.000 laguneko herriak, hurrenez hurren) oraindik zuzen-zuzenean Oriara doazela.



**Zubietako ponpa-etxea, Lasarte-Oriako eta Usurbilgo Intertzeptore Nagusiaren osagarri garrantzitsua. Argazkia: Eguzki.**

*UR ZIKINAK, ORIARA*

***"Baten bati beharbada gezurra irudituko zaion arren, Lasarte-Oriako eta Usurbilgo ur beltzak oraindik zuzen-zuzenean Oriara doaz"***

Beraz, lan hauek bukatzea albiste ona izango da, are gehiago kontuan hartuta atzerapena oso, oso handia dela. Izan ere, 2009an hasi ziren, lau urteko burutze-epea zutela, eta azkenean sei beharko dituzte, gehiago deskuidatzen ez badira, behintzat. Dena dela, atzerapen hori hutsaren hurrengo da kontuan hartzen badugu Lasarte-Oriak eta Usurbilek, Europako Saneamendu Zuzentarauaren arabera, beranduenez 2001ean utzi behar ziotela ur zikinak Oriara botatzeari. Hau da, atzerapena, batez beste, hamabost urtekoa da. Egia esan, Euskal Herrian, oro har, saneamendu planak atzerapen handiarekin burutzen ari dira.

Atzerapena atzerapen, intertzeptorearen lanak bukatzekotan egotea albiste ona da, esan bezala, baina, justu une honetan, kezka berri bat sortu zaigu: den-dena prest ote dago intertzeptorea martxan hasi orduko Lasarte-Oriako eta Usurbilgo (eta Zubietako) ur beltzak erriora ez, baizik eta hara bideratzeko? Bestela esanda, loturak eginda al daude edo epe laburrean egiteko moduan al daude?

